



(abajo en castellano)

Heldu den irailetik aurrera Nafarroako Gobernuako Hezkuntza Departamentuak ILZak ixteko asmoa duelako berriaren aurrean STEE-EILAS Sindikatuak horren salaketa egin nahi du.

Informazio hau Mahai Sektorialeko sindikatu guztiei eman beharrean, Hezkuntzak antolatutako "lan talde"etan iragarri du . Lan talde honek Mahai Sektorialaren eginkizuna ordezkatzeko zuelako susmoa genuen, eta berri hau frogara argia da. Era berean, ez du Formazio Kontseilua deitu, eta Kontseilu horren eginkizuna da onartzea eta ebaluatzea Plana eta beharrezkoak ikusten diren aldaketa organizatiboak. Behin berria zabaldu ondoren ILZko zuzendariei eman zaie horren berri.

Gai honetan, beste hainbatetan bezala, Departamentua modu inprobisatuan ari da, bai eta autoritarioan ere, bat ere ebaluaziorik gabe, eta irakasleen iritzia kontuan hartu gabe. Plan zehatzik ere ez dago.

Behin eta berriro salatu dugun bezala, 2008 urtetik hona etengabe murriztu dute irakasleen formaziorako lerro ekonomikoa; %71,89 izaterainokoa izan da emandako murrizketa, eta honek arrisku larrian jartzen du Hezkuntzaren kalitatea, irakasleen lanerako gaurkotze zientifiko-didaktikoa ezinbestekoa baita.

Bere sorreratik ILZ-ek ikastetxeetan burutu dute irakasleen formazioa, eta horretaz gain hezkuntza-baliabideak bildu ditu; honela, irakasleen eskura izan dira eta hainbat talderen bilerak gauzatu dira guneotan. Egitura oro hobetzen ahal da, bai eta egoera berrian egokitu ere; baina egitura desegitea subjektiboak diren usteetan oinarrituta ez da bidea. Modu objektiboan ebaluatzea da bidea, eta beharrezkoak ikusten diren aldaketak edota hobekuntzak ezartzea.

Iruña, 2012-1-27



El sindicato STEE-EILAS ante la noticia de que el Departamento de Educación parece que tiene intención de cerrar los CAPs a partir del próximo mes de septiembre denuncia la actitud de la administración en este tema.

En primer lugar, esta información no ha sido comunicada a todos los sindicatos de la Mesa Sectorial, sino que fue anunciada en la "comisión de trabajo" que recientemente el Departamento ha creado y que, tal como nos temíamos, está sustituyendo a este órgano de negociación legal de las trabajadoras y trabajadores con la administración.

Tampoco se ha convocado el Consejo de Formación, órgano en el que se debería aprobar y evaluar el Plan de Formación y las modificaciones organizativas que se consideren necesarias. Sólo cuando la noticia ya había sido extendida ha sido comunicada a las direcciones de los CAPs.

En este tema, como en otros, el departamento de Educación está actuando de manera improvisada y autoritaria sin una evaluación previa, sin tener en cuenta las opiniones del personal docente y sin un plan de actuación preciso.

Como hemos ido denunciando, desde el 2008 ha disminuido progresivamente la partida destinada a la formación del personal docente hasta alcanzar un recorte del 71´89% poniendo en grave peligro la calidad educativa ya que para la realización de su trabajo es imprescindible que el profesorado pueda contar con una continua actualización científico-didáctica.

Desde su creación, los CAPs no solo han coordinado la formación en centros y por áreas sino que han sido un lugar donde se concentran los recursos educativos de los que puede disponer el profesorado y donde se hacen reuniones de grupos de trabajo de diversos colectivos. Toda estructura es mejorable y debe adaptarse a las nuevas necesidades pero eliminarla en base a apreciaciones subjetivas no es la solución. El camino es evaluar objetivamente y establecer las mejoras y ajustes que se consideren necesarios.

Pamplona 27-1-2012